

Urpekariak

Fermin Etxegoien



Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Azaleko marrazkia:

Iván Landa

Maketazioa:

Erein

© Fermin Etxegoien

© EREIN. Donostia 2015

ISBN: 978-84-9109-040-3

L. G.: S.S. 1334/2015

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Urpekariak
Fermin Etxegoien

erein

“Gaztea jartzeko!”, eskatu zuen semeak ozenki, eta kras-
katu zitzaion hamabost urte bete berrikoen ahots hori, alde
batetik mehea, umea iraganean ez dela guztiz galdu –aita-
ren pozerako– salatzen duena, eta bestalde ahots lodia, mu-
tikoa heldutasunera ailegatzen ari dela iragartzen diona ai-
tari, eta baita munduari ere.

Irratiagatik ari ziren diskutitzen.

–Ezetz, orain nire txanda da. –Aitaren ahots tentso eta
apur bat nekatua–. Auto honetan bukatu dira horteradak,
gutxienez bost minutuz!

Kataluniara zihoazen, astebete pasa, opor konpartituak
uztailean, haize egokitua derrigor konektatu behar Tütera-
tik aurrera, ezkerraldean basamortua, Bardea, eta eskuinal-
dean menditzarra, Moncayo, hogeita bost urte lehenagoko
apiril batean aitak bere burua gogoratzen du, eskien gainean
eta Bardeako basamortura begira, Moncayotik jaisten,
mendian bakarrik. Aitaren abenturaxo bat izan zen.

–Kontatu dizut zer gertatu zitzaidan Moncayotik eskiekin jaitsi nintzenean?

Semeak ile kizkur trinkoa dauka, den baino altuagoa agerrarazten duena. Bracketsak daramatza, duela urte bete. Aurpegian hasi zaio dena handitzen, puzten bezala, begiak eta sudurra, bekainak eta ezpainak, halere aitak ezin ederrago ikusten du mutikoa, orain desitxuratua dirudien arren lehenagoko umeak.

–Bai... baina ez dut gogoan.

Barrea eragiten dio aitari semearen erantzun ezaxolatuak. Zer daki mutikoak Bardeaz eta Moncayoz? Ezer ez! Zer jakin nahi du? Ezer ez! Hauentzat, bidaiatzea ez da guretzat izan zena, konturatuta dago aita aspaldi, hauei mundua gerturatu egiten dielako Internetak. Mundua edo munduak, badaudelako mundu pilo bat klik batera eta gazte hauei alfergura ematen die haien bila mundu errealerara irriteak, aitaren itaunketa kontu-eskatzaille honek ere semeari alfergura mortala eragiten dion moduan.

–Kontatu izan dizut, baina, behin baino gehiagotan... Ez? Susto handi bat hartu nuela-eta... Bai?

–A bai –dio semeak–, *alud* batekin-edo...

Aitak Radio 3 jarri du, irratia isilean izan baita tarte batez, nahiz eta aitaren txanda zen, nahi zuena jartzeko. Radio 3 nahi du aitak, irrati ez komertziala espainolez, semeari asperdura mortala ekartzen diona. Baina joko joko, diotso aitak semeari. Bakoitzaren txandan, bakoitzak hautatzen duelako zein irrati entzun, bi kantuko tarte baterako.

Laster galduko dute Gaztea irratia sintonizatzeko aukera, eta 40 Principales hautatuko du semeak. Baina kontuz, aitari bururatu baitzaio arau berri bat jokorako: emisora aldatzean, publizitatean baldin badago, txanda galduko da, galduko du publizitatean erortzen denak.

Aitari dagoeneko bururatutako bigarren arau berria izan da, lehenago semeari proposatu egin baitio egin dezaketela ere, txandaren jabe denak, tokatzen zaion bigarren kantua ez baldin badu gustuko, ba hurrengo txandarako gorde eta hiru kantu entzuteko aukera hobea bereganatu.

–Elur-jausi batekin ez, igotzen ari nintzela entzun nuen, bai, zarata ikaragarri bat eta pentsatu nuen, zergatik ez, elur-jausi bat izan zitekeela, nahiz eta ezinezkoa izan, igotzen ari nintzen malda hartan elur nahikorik ez zegoelako, izan ere apirila zen eta mendia justu-justu zegoen elurrez...

Semea leihatilatik begira jarri da, baina aita konturatu da mutikoa ez dagoela Moncayo aldera begira, ez duelako begirada eramaten ejertzitoko hegazkin hura aitaren azpitik –azpitik, bai!– pasatu zen mendien arteko leporantz, hegazkinaren burrunbada ikaragarria entzun zuenean aita jada oso goian zegoelako, Moncayoko maldan gora eskiekin igota... eta istant batez pentsatu bazuen ere, hura elur-jausi bat izan zitekeela, berehala konturatu zen zarata ez zeterrela bere buru gainetik, baizik eta bera baino beherago zegoen puntu batetik, ondoren antzeman baitzuen *caza* hegazkin supersoniko horietariko bat, eskuin alderantz zabal-tzen zen mendi-lepoaren norabidean.

–Ulertzen duzu? Abioia ni baino bajuago zihoan!

–Bai noski, bajuago, zu baino bajuago...

Semea adi jarri zaio irratitari, ordea, aitaren txandako bigarren kantua hastear dagoelako eta zain dago semea, aitzak zer egingo ote duen, arre ala so.

Aita konturatzen da semearen arreta faltaz eta dio, haserre puntu batekin esan ere, paso egiten duela bigarren kantua entzuteaz, hegazkinaren pasadizoan semeak kasu handirik ez egiteak halako amorru bat eragin balio bezala, gaizki bideratutako amorrua dena den, aitzak galdu egin duelako gustuko zuen kantu bat entzuteko aukera, esan bezala, semeak eragin dion amorrua bere buruaren kontra aitzak erabilia, baina gizonak ez daki zoria bere alde jarriko dela berehala.

Gaztea irratia ondo entzuten ez denez, 40 Principales bilatzen hasi da semea.

Aurkitu du, eta:

–Jajajaja... Publizitatean erori zara: nirea da txanda berriz!

Aita barre batean dago, eta semea leihatilatik begira atzera berriz, oraingoan bai, Moncayoko gainetan galduta begirada.

–Hor izan zen, hor pasa zitzaidan hegazkinarena.

Erantzunik ez semearen aldetik, baina to, momentuz ez du begirada aldendu gain horietatik eta bada zerbait, harritzen da aita, aspaldi baztertua badu ere semea mendira erakartzearen, helburua baino, tentazioa, aitzak ondo dakielako

futbola maite duela semeak oroz gain, San Mamesera ahal duen guztietan joatea norbaitek karneta, normalean aitarren senide edo laguneren batek, uzten dionean.

Hamaika jokalaria horietako bat izatearekin amesteko, amestera, San Mamesen.

Ikusiko ahal du semeak bere burua txuri-gorritz jantzita, Moncayoko gailurretik eskuin aldera eta gailurra baino nabarmen beherago irekitzen den mendi-lepo huts horretan, hegazkin militarra sartzen ez uzteko prest, zeru-goietan den futbol zelai bateko atezaina bailitza? Hautatzekotan, semeak aurrelari postua nahiago izaten badu ere... eta nork ez, pentsatzen ari da aita, Radio 3 bilatzen ari den bitartean; non sartu ote da irrati hori?

–Aita, azkar... Hori ere arautu behar dugu: hogeita hamar segundotan emisora aurkitzen ez duenak... txanda galdu!

Nola disfrutatzen duen aitak, semea kontra sentitzen duen honelakoetan. Kostatu zaiolako, oraintsu arte ume lotsatuegia izan delako, oskola barruan bizi zena, kanpoko munduaz askorik jakin nahi izan gabe eta bere logelan gus-tura sentituta beste inon ez bezala, baina honela bizitzeak ahuldadea zekarkion mutikoari eta eskerrak hesia apurtzen hasia den, duen, behingoz, dudarik gabe –pentsatzen du aitak–, futbolarik lagunduta, semea sozializatzeko tresna egokia izaten ari delako. Futbolaz horrenbeste dakienez, beste mutil askoren errespetua lortzen du semeak, eta horri esker, lehen ez bezalako segurtasun batez dabil munduan.

Txiki-txikia zenean, gogoratzen du aitak, animaliak maite zituen ikaragarri. Gainera, badu osaba bat biologo eta abentureroa, behin batean hartz batekin susto handi bat izan zuena, Kantabriar mendikatean. Hasierako urte haie-tan, semeak ez zuen inongo gogorik erakusten ez futboleant aritzeko ez eta futbolaz jakiteko ere, baina animaliangana-ko grina hura desegiten hasiko zitzaion, hasieran gura-soak konturatu gabe, eta futbolarenarenaz ordezkatuko zuen bere logelaren babesean. Benetan gustuko zuelako ala gizarteak eskatzen ziolako?, galdetu izan dio aitak bere bu-ruari, behin baino gehiagotan.

Agertu da Radio 3, semeak agindutako 30 segundoen tarteaguztuz bete ostean gertatu ez bada ere, betetzetik oso gutxira izango zela. Irribarre harroko batekin begiratzen dio aitak semeari, esanez bezala: “Azken momenturaino lu-zatu naiz bilaketan, baina lasaitasuna galdu gabe, banekie-lako aurkitu behar nuela”.

Radio 3tik orain entzuten ari den musika elektronikoa lasaia da, geldoa, ia erritmorik gabea, ambientalala dei dai-tekeen horietakoa, ingelesez *landscape* erabilita esaten zaiona, eta egokia beraz, pentsatzen du aitak, semea eta biok egiten ari diren bidaiarako, Ebro haran zabalean barna eta beherantz baitoaz, Mediterraneo helburu.

Semeak, erran gabe doa, musika erritmikoa nahiago du, elektronikoa ere bai, nahiz eta abestua, ahots metatuen koro moduko horiei esker berebiziko intentsitatea harrapatzen duena, aitak “epiko” deitzen dituen estribillo bonbastiko

horien bitartez –“bonbastiko” hitza ere oso aitarena da–. Era berean, aitari bitxia egiten zaio, oso, musika estilo horri semeak “pop” deitzea, baina badirudi hori dela oraingo deitura estandarra irрати komertzialetan.

Animaliak gustuko zituen garaian semea gauza zen, ordea, garai bateko musikari ospetsuen artean desberdintzeko –Leonard Cohen eta Bob Dylan, Joni Mitchell eta Patti Smith, Mikel Laboa eta Ruper Ordorika–, baina orain badirudi izen horiek ez diotela inongo interesik pizten, agian Laboarenaren salbuespenarekin. Inoiz aitak ikusi du nola gelditzen den mutila bere baitan harrapatua bezala, Laboa oso kantu zahar horietariko bat abesten ari denean, batez ere ama, amaren bat hizpide duten kantuak, adibidez “Ama” deitzen dena eta baita “Oroitzen zaitudanean, ama” izenekoa ere bai.

Baina askoz modu garbiagoan gelditu izan da semea erabat harrapatuta “Ama hil zaigu” izenburu gogorra daramana entzun izanez gero.

Normala da, mutilaren ama hilik ez badago ere.

Normala da, edo izan daiteke, gurasoak bi aldiz banandu direlako azken bost urteotan; bietan, berriz elkartu badira ere gero.

Oraingo oporraldia... ezin da banaketatzat hartu, esan zioten gurasoek semeari, halere uler zezala mutilak, kome-nigarria izan zitekeela, tartetxo batez, gurasoek elkarren atsedena hartzea, horrela esan baitzioten semeari: hartu nahi eta behar izatea.

–Ea, zuretzako txanda orain; nahikoa izan dut pieza elektronikoa instrumental luze honekin, neu ere nekatu naiz eta.

Begirada galdetzaile labur baten ostean, aita serio ari zaion ala ez jakiteko, badoa semea berehala bere irratiazen bila, lehenago mutilak berak ezarritako 30 segundoen muga agian gogoan. Askoz lehenago aurkitu du 40 Principales emisora. Bigarrenkoz jarraian... publizitatean dagoena!

Aitak ez dio ezer, nahiz eta aterako zitzaion barre txikia, baina saiatu da ezkutuan edukitzen. Jolasa bukatu da eta entzun dezala mutilak nahi duena tarte luze batez, oraindik benetan luzea da-eta, oso, aurretik duten bidaia. Komodoa ere bai, diotenez, Lleida-ra ailegatu aurretik, Eix Transversal delako autobide berria hartzen delako eta be-
rauzuzen ei doa Girona hiriraino, lehengo bidaia neketsua ikaragarri arinduta.

Kataluniako independentzia etorri aurretik, bazegoen martxan autobide hori. Denbora galtze bakarra orain muga gerta liteke, oraindik tirabira batzuk sortzen ari dire-lako Espainiatik datozen bidaiari zenbaitekin, baina era be-rean euskaldunak ongi ikusita daude Fraga herri inguruan dagoen muga interestatal berri horretan.

–Nahiz eta zu “españolazo” bat zaren...

–Aitaaa!

Semea aztoratzen da aitaren ustezko iraina entzunda, alde batetik semeak ez baitu txartzat jotzen espainola izatea. Ustezko irain pertsonala baino, semea mintzen duena da

espainol izaeraren gainean aita egiten ari den barre faltsua. Semearen ustez, logiko eta naturala ez ezik, erabat posible delako espainola izatea, noski, aitak dioen “españolazo” hori izan gabe.

Egia esan, aitaren zirria ez doa zentzu politiko batean, linguistiko batean baizik. Semea ikastolara joaten da Bilbon, baina bertako patioan aitak ez du sekula entzun ikasleen arteko elkarrizketa bat bera ere euskaraz. Bakarrik irakasleei erantzuten diete ikasleek euskaraz, ez beti gainera.

Aita ez da inozoa, dena den. Badaki zein den egoera eta baita zein zaila izango den horri buelta ematea Bilbo aldean. Baina guraso biak euskaldunak izanda, gehiago espero zuen semearengandik, euskara erabileraren bitartez preziatzearen garaian. Horregatik deitzen dio semeari, noizean behin, “españolazo”.

Gainera aitari gustatzen zaio semeak erakusten duen nortasuna, berarengan espainol izaeratik dagoen parte ukaezinezko hori –semeak ukaezinezkotzat jotzen duen neurrian– ez duelako modu merkean ukatzen.

40 Principales entzuten ari dira aita-semeak Zaragozako saihezbidea hartu duten unean.

Lagun batek utzi die Mediterraneoko apartamentua L'Estartit herrian. Oso famatua da, besteak beste buzeoa egiten delako bertan. Herriaren aurrean zabaltzen den itsasoan, badira ur-azpiko landaretza eta arrain koloretsuak ikusteko oso egokiak eta ederrak diren bi uharte txiki, Meda izenekoak.

Esperantza horrekin dago aita, apartamentua lagunak utzi zionetik. Elkarrekin “bataiatuko” ote diren semea eta biak Mediterraneoko uretan, botilarekin lehen aldiz buzeatzeari horrela esaten baitzaio: bataioa.

Apartamentua doan irtetea, bestalde, oso gauza positiboa da aitarentzat, aspaldian ez dabilelako batere ondo diruz. Kontable lanak egiten ditu eraikuntzarako materialak alokatzen dituen enpresa batean, eta langileei jaitsi egin diete soldata bi urtez jarraian. Kaleratzeak ere izan dira tarte berean, eta enpresa orain oso urrituta dago jendez. Halere, aitaren lan ardura gehiagora joan da bi urte haue-tan, gutxira joan beharrean.

Hurrengo publizitate tarte luzean sartuta dago 40 Principales irratia eta aitari egiten zaio jasangaitz, “españolazo” izatea zer den, aitak buruan duen ideia horrekin guztiz bat datorren zerbait kutsagarri entzuten baleude bezala, semearengan ezinbestez ernaltzen joan litekeena, halako aldarte ahobero eta garrasizale bat, besteen bizkar ozenki barre egitea maite duena, batez ere futbola eta zezenak bezalako indar-erakustaldiak maite ez dituzten gainerako mutilen bizkar, neskak bazter utzita modu ustez eta adeitsu batean, nahiz eta egiatan adimen apalagoko pertsonatzat hartuta.

Tira, ez ote naiz pasatzen ariko... nonahi karpeto-be-tonismoa ikustean, dio aitak bere buruarentzat eta tentaturik dago, semearen aurrean ere hitza jartzeko, karpeto-betonismoa, Gaztela biak bereizten dituen mendi-lerroa

bezala: *Sistema Central* edo garai batean *Cordillera Carpetovetónica* deitua ere bai, a zein hitz multzo zaharkitu –XIX. mendekoa ote?–, ulergaitz eta, seguruenik, are, desatsegina, semea eta bera bezalakoak –adinez, jatorriz, gustu joeretan– zaretenontzat, ezta?

–Noski, Radio 3n ez dago publizitaterik!

Ño, semea konturatu da aitak asmatutako jokoaren bigarren arauan zegoen tranpa modukoaz, jajaja, egiten du barre sanoa gizonak mutikoaren aurrean.

Prest zaude buzeatzeko?, galdetzen dio segidan, Zaragoza gainditu ostean basamortu itxura duen ondorengo eremua –Monegros famatua– bidaiarien aurrean zabal-tzen hastean.

Bai, erantzuten du semeak, sendo eman nahi duen baina zalantzati ageri den hitz bakar baten bitartez, ondoren isildu egin baita mutila, zain balego bezala, beste askotan legez, gaineratu beharrekoak aitak gainera ditzan... baina oraingoan aita bera ohartu da bien arteko elkarrizketa ia orok, bidaia hasi denez geroztik, hartu duen galdeketa edo itaunketa itxuraz, aita semeari balebilkio bezala azalpenak eskatzen etengabe. Nerabe batekin berbetan eginez gero, seguruenik ezinbestean gertatu behar den zerbait, nerabeek duten defentsiban aritzeko joera ezinbesteko horrengatik, baina aita bera nekatzen hasia da elkarrizketen etengabeko aldarte tirabiratsuaz, eta prest dago presio moduko hori erabat arintzeko.

–Laster, restopean geldituko gara zerbait jateko, ok?

–Ok.

Hogei bat minutuz ez da hizketaldirik entzun auto barruan. Monegros deritzon eremuak inguratzen ditu bidaia-riak eta baita autobidean ari diren auto guztiak eta autobidea bera ere. Muino lehor bateko gain zapalean, zezen beltz handi baten silueta ikusten da, Bigas Luna zuzendararen 1992. urteko *Jamón Jamón* filmean horrenbestetan ageri zen berbera. Filmeko protagonistak Penélope Cruz eta Javier Bardem antzezleak izan ziren. Handik ia hogei urtera, norik esango, egiazko senar-emazte bilakatu behar zutela. *Jamón Jamón* filmatu zenean, 17 urte baino ez zeuzkan Penélopek eta aitak ez ditu oraindik ahaztu filmean behin eta berriro erakusten ziren neska gaztearen titi mardulak.

Patata-tortillaren zaporea dutenak, esaten zion neskari filmean maitalearena egiten zuen Bardem antzezle gazte eta orduan ezezagunak, handik hogei bat urtera, egiazko bizitzan zer eta senarra bilakatu behar zitzaion antzezle orain heldu eta ezin famatuagoak.

Inoiz hitz egiten dute sexuaz aita-semeek. Masturbazioaz-eta, semearen masturbazio esperientziez alegia, nahiz eta askorik zehaztu gabe. Tira, aitak galdetu izan dio semeari, galdetu zion bere garaian, urtebete lehenago-edo, inoiz ailegatu ote zen, ote den, isurtzera... eta semearen-gandik jasotako erantzuna ez zen aitak nahi bezain garbia izan, horregatik harrezkero aitak nahiago izan du gai jakin hori atzera berriz ez ukitu, baina halere kondoi edo

preserbatiboen beharraz eta erabileraz bai hitz egin izan dute geroztik, aitaren ustez nahiko modu erakusgarrian eta kondoiak eskuetan zeuzkatela biek, bai plastikozko zorrotik atera aurretik eta baita atera ondoren ere, semeak aitaren aurrean ikus zezan ze nolako gailua den eta nondik eta nola ezarri behar den zakila ondo estaltzeko, inoren egiazko zakilaren ordeztatano bat erabili bazuten ere.

Ba al dakizu nor den Penélope Cruz?, apurtu du aitak bien arteko isiltasuna.

–Nor?

–Penélope Cruz antzezlea.

–Ez... Bai... Ez dakit

Hamabost urteko mutila, sexuaren ateetan egon daitekeena, dio aitak, gogoratuta berak hamazazpi urterekin izan zuela lehen sexu esperientzia osoa edo behintzat orduan osotzat hartzen zena, erran nahi baita, zakila sartuta sexu kidearen aluan. COU zeritzan institutuko azken kurtsoa bukatu baino pixka bat lehenago gertatu zitzaion aitari, bere adin bereko neska ikaskide batekin, orduan neskalaguna zuena, bizitzan izan zuen lehen neskalagun neskalaguna.

Hau guztia ari da aita oso aspaldiko partez gogoratzen. Irratian 40 Principales emisora jarrita egon da duela gutxira arte, semeak berak itzali baitu hainbatgarren publizitate-tarte luze baten hasieran, musikaren kaltetan publizitateak hartzen duen tokiaz mutila bera gogaituta itxuraz... eta orduan bai, egiazko isiltasuna nagusitu da autoaz. Isiltasun

gustagarria nonbait, giroan ezagun da-eta, nola ari den nor bere baitan bilduta eta baita, aparteko tentsiorik gabe, ondokoarekin ez ezik inguruko basamortuarekin bat eginda ere.

Haize egokituari esker gerta daiteke, noski, honelako barneratze unerik. Autoak ez baleuka, izerdi batean eta ez-tarria zeharo lehortuta besterik gabe egongo lirateke aita-semeak, hitz egiteko batere gogorik gabe eta urrun bake mistikoak oro.